



ESKOLA KIROLEKO ASEGURUAREN ESTALDURA: JARDUKETA PROTOKOLOA

Eskola kiroleko lizentziaren estaldura

Eskola kiroleko jarduera programako edozein jardueratan parte hartzen dutenek aseguru poliza bat izango dute. Aseguru poliza horrek bermatuko du erantzukizun zibileko arriskuen estaldura (hirugarrenei eragindako kalteak), eta baita gorputz atalen eta funtzioen galerengatiko eta heriotzarengatiko kalte-ordainarena ere.

Bestelako istripuen estaldura parte hartzailearen familiak duen aseguru publiko edo pribatuaren bidez egingo da. Hori horrela, jardueraren arduradunak ikasleen aseguru medikuaren gaineko informazioa izatea gomendatzen da

Bestelako asegururen baten bidez osasun laguntza bermatuta ez duten ikasleek osasun laguntzako aseguru bat izan dezakete. Aseguru horren onuradun izateko, beharrezkoa izango da behar den denborarekin eskaera egitea kirola egiten hasi aurretik.

Bi estaldura horien onuradun izango da Gipuzkoako eskola kirolaren programako jardueretan parte hartzen duten eta eskola kiroleko aplikazioan izena emanda dauden kirolari eta entrenatzaileak.

Aseguruak, halaber, jarduerarako bidean izandako edozein istripu estaltzen die eskola kirolaren aplikazioan inskribatuta dauden parte-hartzaileei.

Euskadiko Jokoak

- Eskola kiroleko lizentziarekin nahitaez parte hartzea. Gipuzkoako eskola lizentziak kasu honetan soilik partaideek hirugarrenengo bati egindako kalteak estaliko ditu.
- Euskadiko Jokoak antolatzen dituen erakundeak (Eusko Jaurlaritzak) ardura zibileko aseguru bat kontratatuko du antolatzailearen errua edo arduragabekeriagatik lehiaketa horretan parte hartzen dutenen partaideek sufritu ditzaketan minak estaltzeko.

Espainiako txapelketak

- Espainiako Federazioak nahitaez federazio lizentzia izatea eskatzen duen kasuetan (judoa, adibidez), lizentzia horrek lehiaketan eta/edo entrenamenduan gertatutako edozein istripu estaliko luke.
- Espainiako Federazioak eskola lizentziarekin parte hartzeko baimena ematen duen kasuetan (saskibaloia, eskubaloia...), eskola lizentziak ez du aseguru estaldurarik, eskola kirolaren programatik kanpoko jarduera delako. Kasu horretan, dagokion klubak aseguru bat kontratatu beharko du lehiaketa egunetarako, Espainiako Txapelketara doazen kirolarientzat (adibidez, saskibaloia).



Istripua gertatuz gero jarraitu beharreko prozedura

Eskola lizentzia duen parte-hartzaileak istripua izan badu eskola kirolaren programaren barruko jarduera batean, prozedura honi jarraitu beharko dio:

1. Ikaslea dagokion osasun zentrora joango da, istripu motaren arabera:

- Galera anatomikoak (adibidez, hortzak) eta funtzionalak (adibidez, betaurrekoak) izanez gero, ikasleak dagokion osasun zentrora joan beharko du.
- Gainerako istripuetarako (adibidez, hausturak), parte-hartzailearen tutorearen Osasun Txartel Indibidualarekin joango da osasun zentrora. Aurretik esan bezala, osasun laguntza jasotzeko eskubiderik ez duten parte-hartzaileek osasun laguntzako aseguru bat erabili ahal izango dute, baldin eta ikastaroan kirola egiten hasi baino lehenago, behar besteko aurrerapenez, eskatzen badute.

2. Eskualdeko Kirol Bulegoan honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Istripu-parte (dagokion Eskualdeko Bulegoan eskatu behar da).
- Larrialdiei buruzko txosten medikoa (joan den osasun zentroan eskatua).
- Jatorrizko faktura (ez da onartzen e-mailez bidaltzen dena).
- Faktura ordaindu duen pertsonaren datuak:
 - Izen-abizenak
 - NAREN fotokopia.
 - Kontu korrontea (20 digitu)

3. Ordaintzeko prozedura:

- Agiriak aurkeztu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatu duen aseguru-etxeari bidaliko zaizkio. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, aseguruak ordainketa egingo du.
- Ordainketa 2 hilabeteren buruan jasotzen ez bada, harremanetan jarri behar da dagokion Eskualdeko Kirol Bulegoarekin.

Eskualdeko Kirol Bulegoen kontaktua:

Bulegoa	Helbidea	Kontaktua	Orduetgia
Zarautz	Aritzatalde Kiroldegia Araba Kalea, 20 20800, Zarautz	943130067 dep.zarautz@gipuzkoa.eus	Asteartea 9:30-13:00 eta 15:00-18:00
Tolosa	Usabal Kiroldegia Usabal, 25 20400 Tolosa	943119938 dep.tolosa@gipuzkoa.eus	Asteartea 9:30-13:00 eta 15:00-18:00
Donostialdea	Kirol Etxea Anoeta, 5 20014, Donostia	943473171 dep.donostialdea@gipuzkoa.eus	Asteazkena 9:30-13:00 eta 15:00-18:00 Osteguna 15:00-18:00
Irun	Artaleku Kiroldegia 20300, Irun	943244983 dep.irun@gipuzkoa.eus	Asteazkena eta ostirala 9:30-13:00 eta 15:00-18:00
Donostia	Anoeta, 18 20014, Donostia	943481848 Jignacio_mallaina@donostia.eus	Astelehenetik ostiralera 9:00-14:00
Ordizia	Torretxea. Santa María, 4- 1 ez.20240, Ordizia	943889545 dep.ordizia@gipuzkoa.eus	Astelehena 9:30-13:00 eta 15:00-18:00
Eibar	Ipurua futbol zelaia Indalezio Ojanguren 20600 Eibar	943207071 dep.eibar@gipuzkoa.eus	Asteartea eta osteguna 9:30- 13:00 eta 15:00-18:00

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lanikidetzaz, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes